

Lantainako ahuenak

Euskal Herriko bazter anitzetan, begiek ikusten dutena kasko zokoan dantzari dabilen melodia kantatuak zurkaizten du Zuberoan, Bizkaian edo Baztanen. Gerrak, mendekuak, gatazkak ala tragedia domestikoak kontatzen dizkigute. Sallaberri, Azkue, Aita Donostia ala Riezu musikologoek bilketa lan tematsuari esker iritsi dira gure ezpainera.





Itxaro Borda

IRUDIA: AINARA AZPIAZU "AXPI"

Arizkungo Ordokia auzoko Urtsua jaurretxean ezkontza bukatu berri zen. Senar-emazte gazteek zorionsu ziruditen. Estebe Urtsuaren ama jadanik ederki konpontzen zen Joana errainarekin. Lantainako oparotasuna ekarri zuen dotean: ehunka zikiro, urrezko koilareak, preziozko oihal eta mihi-seak.

Urtsuako ondorengoa, ordea, ilun zebilen. Zetazko arropa zurbilaren azpian andreak sabela borobilegia zuela ohartu zen. Nor zuen haur horrek aita? Ez zen bera alabaina: ez ziren elkarrekin egon, eztei-gaua errespetatzearren. Haserre beltzez irakiten zihoan. Zerbait egin behar zuen. Joanari begira zegokion. Bat-batean, bazekien ateka latzetik nola atera.



Mutila haiatu zuen. Zaldia gibebekoz aitzin ferratzea eta galderarik ez egitea eskatu zion. Joana oheratzeaz zegoen. Urtsuako Santa Ana baselizara gonbidatu zuen samurkiro otoitz egitera. Joanak onartu zuen, bere egoerari buruz Estebe engainatu zuela sinesten hasia zelako.

Jauna xuxurlatuz kopeta apaldu zue-
nean emaztearen lepoa zinta meharraz
inguratu eta azken hatsa eman arte tin-
katu zion. Joanaren begiak itzulikatu zi-
ren. Bizitzarik gabe lur hotzean hedailo
erori zen:

*Lantainako alaba
Urtsuan defuntu dago.*

Euskal Kantagintza berriaren ildo
ireki zuen 1966ko Mikel Laboaren lau
abestiekiko *Goiztiri* etxeko LP laburrean
grabatu zen aro modernoko *Urtsuako
Kantaren* lehen bertsioa: gitarra eta
ahots soila, uhergarria. Benito Lertxun-
dik *Pazko Gaüerdi Ondo* (1989) obran
eresiaren Erdi Aro kutsuko soinu ten-
tsiodun moldaketa orraztu zion. Ego-
kia, ezen Riezu Hispania hegoaldeko
lurretan arrakastatsuak ziren *Bodas de
Sangre* saileko kanta suertean aire se-
fardiekiko lotura sumatu baitzion.

Ohikoan sei edo zazpi koplak baino ez
dira kantatzen. *Plazara* aldizkarian haa-
tik, 1988an, Mariano Izeta zenak hama-
bost bertso ekarri zituen. RM Azkuek
Gartzain herriko Tomas Urrutiaren aho-
tik hartu eta bere *Cancionero Popular
Vasco* (1918-1921) liburuan musika
partizioarekin agertu arazi zuen. Dena
delakoan bertso laburretan bihikatzen
doan gertakariak bizkarrezurrean behe-
ra izua isurtzen du mendeak urrundu
ahala.

Abestia *Agur ene arreba, Goiti zazu
burua, Urtsuak zazpi leiho* hasierako
bertsoarekin estrenatzen da bildume-
tan. Testuak biluzia ematen du bere hitz
apurrekin eta *ene arreba Joana* eta *ene
anaia jauna* errepikapenek mailuen
pare jotzen dute zintzurrean pasatzen
direnean. Errealitatearen eta fikzioaren
artean zalantzaz dator bihotzaren hon-
doraino larrutzen gaituen eresia.

Urtsuatar bortitzak, ankerrak

Urtsuako gotorlekua kokatu daiteke
mapa batean, badakigu non dagoen eta
nahi duenak ikusten ahal du. Arizku-
neko jaunek Nafarroako historian be-
raien atzamarraren hatza utzi zuten:

URTSUAKO KANTA

*Agur ene arreba
ene arreba Joana:
Berri bat aditu dut
ene arreba Joana.*

*Zer aitu duzu bada,
ene anaia jauna?
Enbrazo omen zara
ene arreba Joana.*

*– Zertan ezautzen naute,
ene anaia jauna?
– Gerria loditu ta
laburtu kotilluna.*

*– Enazazula sala
ene aitametara
et'are gutiago
Urtsuko semetara.*

*– Zer emain duzu sari,
ene arreba Joana?
Txapela lumarekin
ene anaia jauna.*

*– Ez da, ez, hori sari,
ene arreba Joana.
– Bortzetan ehun luis
ene anaia jauna.*

*– Hoiek eztutzu aski,
ene arreba Joana.
– Zaldia zelaturik,
ene anaia jauna.*

*– Hoiek eztutzu aski
ene arreba Joana.
– Haurra besoetara
ene anaia jauna.*

*Zaldia zelarekin
zuretzat jarria da.
Nik iten dudan haurra
zure besokoa izain da.*

*– Hori da, hori, sari,
ene arreba Joana:
Haurra besoetara,
ene arreba Joana.*

*– Zazpi errota berri,
zortzi jauregi xuri;
hoien guziengatik
nik ez Urtsura nahi.*

*– Goiti zazu burua,
ene arreba Joana.
– Eztezaket goratu,
anai Batista jauna.*

*Urtsuak eder leiho
Lantainak ederrago
Lantainako alaba
Urtsuan hila dago.*

*Urtsuan zazpi leiho
zazpiak lerro lerro,
Lantainako alaba
Urtsuan defuntu dago.*

*Urtsuan defuntua
Santa Anan kausitua:
Adios erran gabe
etxetik partitua.*

*Gure Mari Kattalin
emakume fidela,
pesalonbre handitan
gelditua bide da.*

*– Etzinakien bada
trabatua zinela?
Orduan etzaiten
ezkontzarikan zerra.*

Amaiurko gazteluaren setioko azken
borroketan Leringo kondearen lagun-
tzaile azaldu ziren. Espainiako erregeak
bereziki sariztatu zituen esku-ukaldi
horrengatik. Ez zuten hargatik fama ona
eduki: bortitzak ziren, lurrez eta ohorez
gose, Bozaten esklabo erabiltzen zituz-
ten agotak zeuzkatzen. Orduko nobleen
antzera ikasiak ere ziren, puxanten
idazkari eta notarioa zirelako. Hegoal-
dera bezain iparraldera hedatzen zen

urtsuarren itzala: Orzaizeko Arizmendi
jaunttoekin uztartuak ziren.

Urtsuako Pedro (1521-1561) da sen-
diko kiderik ezagunena. Ameriketara
barna ibili zen, Kolonbian hiriak sor-
tzen, indioak kalitzen eta urre bila, Oña-
tiko Lope de Agirre eta Ines Atienza an-
dregaiaren konpainian. Werner Herzog
alemanak *Agirre, Der Zorn Gottes* film
erraldoian irudikatu zituen biak, herioa-
ri burlaz, Marañoñ ibaia jaisten. Ikus-

garria halaber, Iñaki Elizalde 2012an *Baztan* lanean aurkeztu zigun eta Joseba Apaolazak gorpuzten zuen Urtsuako Matias.

Mikel Laboaren ahotsez itxuratzen dugun urtsuarra ezpal berdinekoa zela imajinatzen dugu: ankerra, gogorra, buru beroa. Batzuek diote Urtsua honek Estebe zuela izena eta ezbeharrak 1700 urteen irian izan zela. Jondoni Joane arrastiriz. Baina nehork ez daki zuzen. Frantziar Luis bat errege zela ziur dago ezen Joanak bere anaia apezari bostehun luis hitzeman zizkiolako isiltasunaren trukean:

*Bortzetan ehun luis
ene anaia jauna...*

Lantainako alaba

Joanaz are gutxiago dakigu. Lantainako alaba Bidarra, Hazparne ala Ezpeletakoa zitekeen. Gauza segurua da base-ri okitua zela, zazpi leiho zituen arren, Urtsuak baino anitzez gehiago. Zazpi eta zortzi zenbaki mitikoekin jostatzen da bertsolaria. Nasaitasun izugarriaren sinboloa da, zazpi direlako arrosa perfektuaren ezpalak, bekatu mortalak, zentsuaren adinak, Altxaiko herensu-gaeren buruak...

*Zazpi errota berri
zortzi jauregi zuri,
horien guziengatik
nik ez Urtsura nahi...*

*Urtsuak eder leiho
Lantainak ederrago...*

Ezkontzak harilkatuz emendatzen ziren etxaldeak, ospeak, ontasunak. Frantziaren eta Espainiaren arteko mugak finkatzen zihozan denboretan jendeek harremanetan segitzen zuten Baztan eta Bidarra zein Baigorriko hiritarrek. Oraindik ere Aritzakun, Urrizate ala Izpegi pasaiek erromatarren metal preziosoen bidea ametsez azpatzen digute.

Anbizioak galduko zuen Joana. Anaiari kasu egin bazion bizitza bederen salbatuko zuen. Batistarekin jolasean aritu zitekeen, harekin tratatu zezakeen baina urtsuarra ez zen erraza engainatzen. Gezur eta gordetze alorrean gaitzeko eskarmentua bazuten. Baztaneko gaztelu eta jauretze kasik guztien jabe ziren XIV-XVIII. gizaldietan.

*Agur, nere arreba
nere arreba Joana:
Berri bat aditu dut
nere arreba Joana.*

*- Zer aitu duzu bada,
nere anaia jauna?
enbraza omen zara
nere arreba Joana.*

Santa Ana baselizan erailketa

Kanta anaia jaunaren eta arreba Joanaren arteko solasaldiarekin abiatzen da. Anaiak badauki arreba haurdun - trabatua, izorra, enbraza...- duela eta isiltasunaren prezioa finkatzen dabil koplari kopla. Txapela lumarekin eta zaldiaren ondotik, dirua luzatzen dio Joanak eta horrekin sosegatzen bezala da. Bakearen amoregatik ekarriko duen haurraren besokoa dukeela erraten dio:

*Hori da, hori, sari,
nere arreba Joana:
Haurra besoetara
nere arreba Joana.*

Anaia apezak ez zuen lortu Joanaren Urtsuara ezkontzeko xedea geldiaraztea. Bien arteko adostasunak ordea galerna iragartzen du. Joanaren ahotsean ikara nabaritzen da. Denek muturik geratu beharko dute, ezkontzarekin bat ez zetozkeen gurasoek eta senargaiak ez dutelako deus jakin behar:

*- Enazazula sala
ene aitametara
et'are gutiago
Urtsuko semetara.*

Zaldiz hurbildu zen Joana Urtsuako Esteberen egoitza munttoraino. Idi zainartek tiraturiko hamar orga bazeuzkan atzetik, altzariz, oihalez, portzelanazko plateraz eta arropaz kargatuak. Bozateko txistulari trebeek alaitu zituzten ezteiak, mutil eta neska dantza ugari eskainiz. Joana ez zen sekula hain zoriontsu sentitu.

Duda izpirik ez zuen Santa Ana baselizarara esker onezko otoitz baten marmaratzeko gonbitari baietz erantzutean. Unearen zehatzaz baliatu zen Estebe bere emaztearen erailtzeko, xingola zuri meharrez ala ezpata kolpez, bertsioren arabera.

*Lantainako alaba
Urtsuan defuntu dago.*

*Urtsuan defuntua
Sant' Anan kausitua:
Adios erran gabe
etxetik partitua.*

Urtsuarrak Frantziara ihes egin omen zuen adios erran gabe. Baina poetak morala ttantaz bukatzen du kanta ahantzi ezina, tragediaren zaina ziprztinduz. Mari Kattalin hori, Joanaren sehia, ahizpa edo ama daiteke eta hausnarrean dakusagu:

*Gure Mari Kattalin
emakume fidela,
pesalobre handitan
gelditua bide da:*

*- Etsizakien bada
trabatua zinela?
Orduan etzaiten
ezkontzarikan zerra...*

Lantainako funtsetan, ilargi beteko gauetan, Joanaren auhenak entzuten dira dagoeneko. ■

